

Sentikorrak

Wikipediak dioenez, sentimentalismoa mugimendu literario eta filosofiko bat izan zen – Gotthold Ephraim Lessing idazle alemaniarrek *Empfindsamkeit* deitua-, eta sentimentalismo erlijiosoa eta morala ere ekarri zituen berekin. XVIII. mendearen bukaeran sortu zen, mende bat lehenago abiatua zen Argien Garaiko arrazionalismoari aurka eginda.

Sentimentalismoak Erromantizismoari ireki zion atea, eta, mugimendu sentimentalistaren parte izan ziren sortzaile ugarietz gain (Samuel Richardson, Sophie dela Roche, Edward Young...), haren eraginpean ere aritu ziren Jean-Jacques Rousseau eta Johann Wolfgang von Goethe.

Segur aski, sentimentalismoa beharrezkoa izan zen gehiegizko arrazionalismoari aurre egiteko, eta gogoratze-ko gure emozioak eta sentipenak ere kontuan hartu behar ditugula, animalia arrazional hutsak ez garen heinean.

Baina sentimentalismoak baditu arriskuak, neurritz kanpokoak bada.

Mugimendu filosofiko gisara aspaldi desagertu zen arren, sentimentalismoak iraun badirauelako. Areago, sentimentalismoa, sentipenak eta emozioak pentsamendu arrazionalen gainetik jartzen dituen aldetik, nagusi da orain



Inma Errea

ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA

@inmaerrea

Herritarrok sentimentalismo azukretsuaeren pean biziko ez bagina, erneago ibiliko ginatete, ongintzako erakunde eta antolamenduak sobran leudeke

jendarte eta botere egitura mendebal-darretan.

Gehiegizko sentimentalismoaren isla dira telebistako iragarki hipergluzemikoak, ekimen solidario *onkeriazale* asko, Eguberrian bereziki, baina ez solik (eta elkartasun masifikaturako dei zuriak, non maiz ahalegin "txiki" bat eskatzen edo irakoditzen) baitigute herritarroi


hala enpresa irabazi-asmodunek nola irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta gobernuek beraiek, zertarako eta asetzeko berez herritarren zergen bidez bete beharko lituzketen beharrak (gizakien behar oinarritzkoenak, jana, atarpea, osasuna, hezkuntza eta halakoak) edo jendarte aurreratuek berezko omen dituzten beste egiteko batzuk (osasun ikerkuntza edota aberastasunen partiketa zuzen eta bidezkoa, kasu).

Giza izaeran doakigu solidarioak izatea, estu lotuta sentitzea kidekoekin eta unibertsoko izaki bizidun guztiekin. Ebidentzia horri eutsita formulatu zituen sentimentalismo filosofikoak gizakion betebeharrak etikoak.

Orain kapitalismoak gizakion egiazko sentipenak eta jatorrizko joerak manipulatu, eta hain zuzenak ez diren gauzak sinetsarazi nahi dizkigu, sentimenduak bezain gizatiarrak diren zentzuduntasun eta logika oren gainetik. Herritarrok sentimentalismo azukretsuaeren pean biziko ez bagina, erneago ibiliko ginatete, eta aberatse-nei ez genieke utziko hain erraz ihes egiten haien irabazietatik behar dutena jendartearen beharrak asetzerantz bideratzeko haiek ere duten eginbeharrari. Eta sobera egongo liriateke ongintzako erakunde eta antolamenduak. ■




SOUVENIRS
ikupe
delikatessen



SOUVENIRS
izaro
delikatessen




Aiesta




ZURE txokoa



AIETEKO
Ovando Elkarte
2014
II. Marmitako Lehiaketa



TOTO
Bertiko, aiantentzia
nare. Inbentario
Instauratzen dola
Instituzioak
2015



PAXI EZKURRA
20-05-2015

EUSKAL OROIGARRIAK
Harizko brodatu pertsonalizatuetan adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14
20003 Donostia · Euskal Herria
© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com